**Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 9koa, Unibasqeko zuzendariarena, Euskal Herriko Unibertsitateko lan kontratudun irakasleen ikerketa-jarduera ebaluatzeko eskabideak aurkezteko prozedura eta epea ezartzen dituena, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseiluaren 2025eko urtarrilaren 9ko erabakiaren bidez onartua.**

Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Unibertsitate Sistemaren martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoak 87.5. artikuluan ezartzen du unibertsitate publikoetako lan-kontratudun irakasle eta ikertzaileen ordainsari-araubidea 77.2. artikuluan aipatzen den araudiaren arabera zehaztuko dela, eta, nolanahi ere, aplikatzekoa den autonomia-legeriaren esparruan eta negoziazio kolektiboaren bidez. Autonomia-erkidegoek ordainsari gehigarriak ezarri ahal izango dituzte, banakako merezimenduei lotuak, honako eginkizun hauetako bakoitza betetzeagatik: irakaskuntza-jarduera, ikerketa-jarduera, ezagutza transferitzeko eta trukatzeko jarduera, eta kudeaketa-jarduera.

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko 2004ko otsailaren 25eko 3/2004 Legeak 34. artikuluan ezartzen du Eusko Jaurlaritzak unibertsitateko irakasleen kidegoei orokorrean dagozkienen antzeko osagarriak ezar ditzakeela, bai zenbatekoari bai baldintzei dagokienez, Lege honen 14.1 artikuluan agertzen diren kategorietako kontratu iraunkorra duten irakasle finkoentzat eta bertako ikertzaileentzat.

Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (aurrerantzean, UPV/EHU) irakasleen eta ikertzaileen ordainsariei buruzko 2008ko martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuak 3. artikuluan ezartzen ditu lan-kontratupeko irakasleen eta ikertzaileen ordainsariak, eta horien artean daude 8. artikuluan zehazten dituen ikerketa-merezimenduengatiko ordainsari osagarriak. Aipatutako 8. [artikulu horrek, hirugarren atalean, hau dio: “Unibasqek ikerketa-jarduera ebaluatuko du, Ikerkuntza- jardueraren Ebaluazio Batzorde Nazionalarekin batera [gazteleraz, Comisión Nacional Evaluadora de la Actividad Investigadora delakoa; aurrerantzean, CNEAI]. Batzorde hau irakasle eta ikertzaile funtzionarioen ebaluazioak egiteaz arduratzen da”.

2023-2026 Unibertsitate Sistemaren Planak (2023-2026 USP) Bikaintasun Zientziaren garrantzia ezartzen du, eta plan hori antolatzeko ardatzetako bat dela ezartzen du. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta UPV/EHUk sinatutako 2023-2026 programa-kontratuak bere jardueren artean "2023-2036 USParekin bat datorren ikerketa-jarduera inpaktuduna ebaluatzeko eta aintzatesteko" ekintza-ildoa jasotzen du.

Honegatik guztiagatik, eta Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legean ezarritakoaren babesean, Agentziaren Gobernu Kontseiluak honako hau

EBAZTEN DU:

Bakarra.- UPV/EHUko irakasle kontratatu iraunkor, UPV/EHUko irakasle atxiki (eta UPV/EHUko irakasle laguntzaile doktore) eta plaza lehiaketara atera bitartean UPV/EHUko lanpostu iraunkorren bat bitarteko gisa betetzen duten lan kontratudun irakasle eta ikertzaile doktoreen ikerketa-jarduera ebaluatzeko deialdia onartzea eta argitaratzea, honako oinarri hauek aintzat harturik:

OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

1. Deialdi honen xedea lan-kontratu iraunkorra duten UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen ikerketa-jarduera ebaluatzea da, honako kategoria hauetan: Irakasle Oso, Irakasle Agregatu, Irakasle Lankide iraunkor,



Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T6GBF-D6B7
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** IÑAKI HERAS SAIZARBITORIA | 2025/01/14 16:13:46

kontratu iraunkorra duten Doktore Ikertzaile eta kontratu iraunkorra duten Ikerketa Irakasleak. Halaber, UPV/EHUko irakasle atxiki (eta UPV/EHUko irakasle laguntzaile doktore) eta lan kontratudun bitarteko irakasleena ere, plaza iraunkorren batean aldi baterako lanean badaude eta lehiaketa prozedurara atera arte.

UPV/EHUrekin 2024ko abenduaren 31n adierazitako kategorien batean kontratua daukaten pertsonek soilik izango dute ebaluazio hau eskatzeko eskubidea.

Bigarrena.- Ebaluazio eskaera egiteko bete behar diren baldintzak.

Aipatutako irakasle edo ikertzaileak jarraian aipatzen diren egoeretako batean aurkitu beharko dira:

a) Ebaluazio positiboa jaso duen azken tartea 2018ko abenduaren 31n amaitzen bada edo aurreko urteetan amaitu bada.

b) Aurretik inoiz aurkeztu ez izana eta 2024ko abenduaren 31n ebaluagarri diren gutxieneko 6 urteak izatea.

c) Azken ebaluazio tarte arrunta onartu ez zaienei eta tarte horren amaiera data 2024ko abenduaren 31 edo aurrekoa izan bada. Egoera honetan aurkitzen diren eskatzaileek 6 urteko ebaluazio tarte berri bat egin ahal izango dute aurkeztutako, eta negatiboki ebaluatutako, azken tartearen urte batzuekin eta, gutxienez, tarte horren ondorengo 3 urterekin. Batera aurkeztutako bi tarte edo gehiagoren aurreko ebaluazio negatiboaren kasuan, seiurteko berria azken ikerketa-tartearen berezko urteekin soilik osatuko da.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 89.1 artikuluan aurreikusitako amatasun- edo aitatasun-baimenak, seme-alabak edo ardurapean dituen lehen mailako beste senide batzuk zaintzeko eszedentzia-egoeran dauden eskatzaileek, edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran daudenek, seiurtekoak ebaluatzeko eskaeran, baimena hartu duen edo eszedentzia-egoeran egon den urteak – eta urte horietan argitaratutako ekarpenak – sartu ahal izango dituzte.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eta aukera-berdintasunaren ekitatea eraginkorra lortzeko estrategia orokor baten barruan, jarduera zientifikoa eta ikertzailea ebaluatzeko ikerketa-tarteak zenbatzeari dagokionez, hala nahi duten eta aurreko paragrafoan deskribatutako egoera horietakoren batean dauden pertsonek urtebete luzatu ahal izango dute indarrean dagoen azken seiurtekoa izan duten baimen edo eszedentzia bakoitzeko. Baimen edo eszedentzia-egoera horiek 2018ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartekoak izan beharko dute. Seiurtekoaren luzapena bizirik dagoen azken seiurtekoari aplikatuko zaio.

Aurreko neurriaren alternatiba gisa, lau ekarpen aurkeztu ahal izango dira, bost ekarpen nagusien ordez, baldin eta ebaluatu beharreko sei urteko tartean eskatzaileak behar bezala justifikatu badu ANECAren zuzendariaren 2024ko otsailaren 20ko Ebazpenaren lehenengo atalean (Xedapen orokorrak) zerrendatutako baimenak, eszedentziak edo bajak hartu izana. Ebazpen horren bidez argitaratzen dira unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen ebaluazioetan berdintasuna, bateragarritasuna eta inklusioa bermatzeko irizpideak. . Amatasun- edo aitatasun-baimenen kasuan,, baimenaren gutxieneko iraupena 16 astekoa izango da. Eskatutako seiurtekoa lau ekarpenekin eman ahal izango da, eskatutako bost ekarpenen ordez, gutxienez 24 puntu lortzen badira (30 izan beharrean).

Hirugarrena.- Eskaera aurkezteko epea.

Ikerketa-jarduera ebaluatzeko eskaerak aurkezteko epea 2025eko urtarrilaren 13tik 2025eko otsailaren 3ra artekoa izango da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. artikuluan ezarritakoaren arabera. Eskabidearekin batera aurkezten diren ekarpenak ebaluatzen diren urteetan argitaratu behar izan dira.

Laugarrena. Eskaeren formalizazioa.

1. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 e) artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunak erregistro telematikoaren bidez aurkeztu beharko du eskabidea, eta, horretarako, lege horren 9. artikuluan aurreikusitako edozein bide erabili ahal izango du.

Inprimakiak eta eranskinak bete eta bide telematikoz bidaliko dira, ANECAren egoitza elektronikoaren bidez: https://aneca.sede.gob.es/. Helbide horretan bertan egin ahal izango da eskaeren izapideen jarraipena.

Horren bidez, Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionalaren (CNEAI) ebazpena eskuratu ahal izango da. Ebazpen horretan, eremu bakoitzerako ebaluazio-irizpide orokorrak eta espezifikoak zehazten dira. Era berean, erregistro elektronikoaren bidez aurkeztutako idazkien kopiak edo egiaztagiriak lortu ahal izango dira, eta eskaeren izapidetzearen jarraipena egin ahal izango da.

2.- Behin eskaera aipatutako aplikazio informatikoan bete eta ixten denean, inprimaki bat sortuko da. Inprimaki hau eskatzaileak sinatu beharko du eta Eusko Jaurlaritzaren administrazio elektronikoaren erregistro telematikoaren bidez eskaera osatzeko erabili behar da, Unibasqen web-orrian argitaratuko da: Izapidetze-formularioa - Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa.

Nahiz eta ANECAren aplikazio informatikoa bete eta itxi, eskaera ez da baliozkoa izango Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan epe barruan eta behar bezala ez bada aurkezten.

3.- Eskaera betetzean, derrigorrez egoitza elektronikoaren bidez egingo dena, eskatzaileek hurrengo dokumentuak erantsi beharko dituzte:

a) Eskaera-inprimakia sinatuta eta ANECAren egoitza elektronikoan behar bezala erregistratuta.

b) Eskatzaileek Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Elektronikoaren ordainketa-pasabidea erabiltzen ez badute, eskabidearekin batera tasa ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da. Ordainketa Administrazio Elektronikoan eskuragarri dagoen ordainketa gutunean adierazitakoaren arabera egin ahal izango da.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren Legearen arabera, 49.70 euroko tasa ezartzen da ikerketa-jarduera ebaluatzeko eskaera izapidetzeagatik.

Eskatzaileak ordainketa eskaera telematikoki bidali ondoren egin beharko du. “Nire ordainketa” zerbitzua herritarrek EAEko edozein administrazio publikorekin egin beharreko izapide guztiak online, modu seguruan eta doan ordaintzeko pasabidea da. Ordainketa Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidearen bidez egin ahal izango da; www.euskadi.eus webgunean duzun “Nire Karpeta”-ra sartuz.

4.- Unibasq eta ANECAk duten lankidetza Akordioaren arabera eskaerak Euskal Autonomi Erkidegoaren edozein hizkuntz ofizialean aurkeztu ahal izango dira.

Bostgarrena. - Eskaeraren edukia.

1. Eskatzaileak honako hauek adierazi beharko ditu ANECAren aplikazio informatikoan:

a.- Aplikazioak sortutako eskabide-inprimakia, eskatzaileak sinatua.

b.- Eskabidearen aplikazioa betetzean sortzen den curriculum vitae laburtua, interesdunak ebaluatuak izatea nahi dituen bost ekarpenekin.

Eranskin honetako zazpigarren atalean aipatzen diren ebaluazio-irizpideetakoren batean sailka daitekeen edozein unitate hartuko da "ekarpentzat". Aipatzen den ekarpen bakoitzeko hura lokalizatzeko eta identifikatzeko behar diren datuak jarri behar dira.

Ekarpen bakoitzak honako hauek jaso beharko ditu:

- Aurkitzeko eta identifikatzeko behar diren datuak.

- Identifikatzaile iraunkor bat (DOI, Handle, ARK, ARK, SWHID, edo, oro har, URI-URL bakar iraunkor bat).

- Gordailu-biltegirako esteka, naitaezkoa bada, edo gordailu hori.

Ikerketaren helburu eta emaitza nabarmenenak jasotzen dituen "laburpen motza" gehitu behar zaio ekarpen bakoitzari, aplikazio telematikoak ezarritako gehieneko luzerarekin.. Banakako laburpenen ordez, ekarpen guztiak barne hartzen dituen laburpen bakar bat aurkez daiteke.

Era berean, eskatzaileak ikerkuntzaren "garrantzi- eta inpaktu-zantzuak" aurkeztu beharko ditu. Zantzu horiek kontatzean, ordena honi jarraitzea gomendatzen da:

1. Ezagutzaren aurrerapenari egiten dion ekarpena (originaltasuna, berrikuntza, lehentasun tematikoa, eztabaida zientifikorako ekarpena, ekarpen metodologikoa, besteak beste).

2. Ekarpenaren inpaktu zientifikoa (erabilera, beste egile batzuek egindako erreferentziak, kalitatea, barneratzea eta hedabidearen eragina, besteak beste).

3. Ekarpenaren eragin-soziala (aipamen eta erreferentzia ez-akademikoak, ingurune ez-akademikoetan eraginkortasunez erabiltzea eta aplikatzea, besteak beste).

4. Zientzia irekiari egindako ekarpena (irekitasun-maila, FAIR printzipioen betetze-maila datu-multzoetan, sofware libreari egindako ekarpena, besteak beste).

Ekarpenak talde-lan baten emaitza izanez gero, egile bakoitzak bere curriculumean sar dezake ikerketa hori. Nolanahi ere, dagokion laburpenean espresuki aipatu behar du egileak talde-lanari egindako ekarpen pertsonala.

Eskatzaile bakoitzak beste bi ordezko ekarpen aurkeztu ahal izango ditu, erreferentzia egokiekin eta ondo identifikatutakoak, hasieran aurkeztutako beste bi ordezka ditzaketenak eta ebaluazio-prozesuan eskatutako gutxieneko puntuazioa lortzeko kalitate eskasekotzat jo daitezkeenak.

c.- "Curriculum vitae" normalizatua (FECYT eredua gomendatzen da), ebaluatu beharreko urteetako

ikerketa, garapen eta berrikuntza jarduerak soilik barne hartzen dituena. Abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretua garatzeko ikerketa-jarduera ebaluatzeko prozedura ezartzen duen 1994ko abenduaren 2ko Aginduan xedatutakoaren arabera, CV honek honako hauek jaso behar ditu:

1. Historia zientifiko osoa.

2. Seiurtekoari dagozkion urteetan eta gutxienez aurreko hiru urteetan finantzatutako proiektuetan parte hartzea.

3. Eskatutako aldiari dagozkion argitalpenak, gutxienez..

4. Egonaldiak atzerriko zentroetan.

5. Gonbidapen bidez edo antolatutako kongresuetarako komunikazioak eta ponentziak, eskatutako seiurtekoari dagokion aldian.

d.- Ebaluatzea eskatzen den denboraldiko jatorrizko zerbitzu-orri eguneratua, 2024ko abenduaren 31n betetako lanpostua eta ebaluatu nahi den tartea jasotzen dituena, eta eskatzaileak aldi horretan izan duen dedikazio-araubidea jasotzen duena. Zerbitzu-orriak deialdi hau Unibasq-en webgunean argitaratzen den egunaren ostekoa izan beharko du.

e.- Ikerketa zerbitzu-orrian jasota ez dagoen zentro batean egin bada, kontratuen, izendapenen, bekadun-kredentzialen kopia soila edo antzeko beste dokumentu fede emaileak gehitu behar dira. Bertan kontratu edo beka epea eta dedikazio-erregimena adierazi behar dira. Edozein kasutan ere, beti goi-mailako zentroa edo bere jarduera nagusia eta ohikoa ikerketa dela izan behar da.

2. Administrazio-prozeduraren edozein unetan ANECAk eskaerarekin batera aurkeztutako fitxategi elektronikoen jatorrizko dokumentuak eska ditzake, haien baliotasuna eta bat-etortzea egiaztatzeko.

3. Eskaerarekin batera aurkeztutako fitxategi elektronikoak sortzeko jatorrizko dokumentuak aldatzen dituztenen aurka legearen bidez jarduteko eskubidea du Unibasqek.

4. Aplikazio informatikoarekin lotutako kontsultak egiteko interesdunek http://www.aneca.es/Contacto/Aneca_responde helbidera jo dezakete.

5. Interesdunek Unibasq-era jo ahal izango dute deialdi honekin lotutako edozein kontsulta egiteko, ANECAren aplikazio informatikoari ez badagokio.

6. Unibasqek eskatzaileari edozein momentuan dokumentazioa eskatu diezaioke alegatutako merezimenduak edo legalki eskatutako bete behar diren baldintzak egiaztatzeko. Unibasqeko ebaluazio prozesuetan gardentasuna eta sinesgarritasuna sustatzeko, eskatzaileek informazio egiazkoa eta zehatza emateko konpromisoa hartzen dute. Horrela ez bada, erantzukizun administratibo edo penalez gain, Unibasqeko ebaluazio-prozesuetan pertsonek edo erakundeek emandako informazioetan irregulartasunen aurrean prozedura onartzen duen 2019ko ekainaren 24ko Unibasqen Etika eta Eskubideen Batzordearen Akordioan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Seigarrena. - Ebaluazio irizpideak.

1. Ebaluazio-esparru bakoitzerako irakasle funtzionarioei aplika dakizkiekeen ebaluazio-irizpide berberak

izango dira aplikagarri, CNEAIren Batzordeburuaren ebazpenean jasotakoaren arabera (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren egoitza elektronikoan aurki daiteke).

2. Ebazpen horretan, 1994ko abenduaren 2ko Aginduaren 7. artikuluan eta abenduaren 3ko CNU/1181/2019 Aginduaren hirugarren zenbakian ezarritako irizpide orokorrak beteko dira. Aipatutako irizpide orokor horiek CNEAIren 2024ko abenduaren 9ko Ebazpenean ebaluazio-eremu bakoitzerako ezarritako berariazko irizpideekin osatzen dira.

Zazpigarrena. - Prozedura bideratzea.

1. ANECAri dagokio, CNEAIren bidez, ikerketa-jarduera ebaluatzeko prozedura bideratzea.

2.Bere zeregina betetzeko, CNEAIk komunitate zientifikoari aholkua eskatuko dio, eta aholkularitza-batzordeen eta adituen bidez antolatuko da, arlo zientifikoen arabera. Horien zerrenda behar bezala argitaratuko da. CNEAIri dagokio eskaerak zientzia-eremu jakin batera atxikitzea, kontuan hartuta egindako lanaren eta ikerketa-jarduera ebaluatzeko irizpideak argitaratzen dituen 2024ko abenduaren 9ko Ebazpenean zerrendatutako eremuen arteko lotura.

3. Eskaerarekin batera aurkeztutako informazioa eta dokumentuak soilik hartuko dira kontuan prozesuan. Hori dela eta, entzunaldi-izapidea alde batera utziko da urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidegoaren Legearen, 82.4 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Zortzigarrena. - Ebaluazio-prozedura.

1. Aholku-batzordeek eta, hala badagokio, kontsultatutako adituek iritzi teknikoa eman beharko dute eskatzaileari ebaluatutako 5 ekarpenei buruz.

2. ANECAko zuzendariak izendatutako Aholku Batzordeak edo espezialistek egoki irizten badiote, eskatzaileei curriculum vitaean zerrendatutako ekarpenen baten edo guztien kopia bidaltzeko eskatu ahal izango diete, ANECAko irakasleen ebaluaziorako dibisioko zuzendariaren bitartez.

3. Iritzi teknikoa zero eta hamar bitarteko zenbaki baten bidez adieraziko da, eta gutxienez sei puntu beharko dira ebaluazio positiboa lortzeko sei urteko tarte batean.

4. Ebaluazioan, 1994ko abendaren 2ko Aginduaren 7.artikuluan eta abenduaren 3ko CNU/1181/2018 Aginduaren hirugarren zenbakian ezarritako irizpide orokorrak beteko dira. Irizpide orokor horiek CNEAIren 2024ko abenduaren 9ko Ebazpenak eremu bakoitzerako onartutako ebaluazio-irizpide orokor eta espezifikoekin osatzen dira, baita ANECAren Zuzendaritzak ezarritako aplikazio-baremoarekin ere.

5. CNEAIk behin betiko banakako ebaluazioa ezarriko du, aholku-batzordeek eta adituek emandako kalifikazioak kontuan hartuta, eta, ebaluazio-prozesua amaitutakoan, emaitza Unibasqi helaraziko dio.

Bederatzigarrena. - Ebazpena.

1. Unibasqeko zuzendariak baterako ebazpen bat jarriko du iragarki-taula elektronikoan Egoitza elektronikoa – Euskadi.eus, emaitzak jakinarazteko: https://labur.eus/gK7ZR

EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIA
AGENCIA DE CALIDAD DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO

Ebazpen hori iragarki-taula elektronikoan argitaratzen den data ebazpenaren jakinarazpena komunikatzeko data formala da, xede guztietarako. Nolanahi ere, ondorengo egunetan ebazpen indibidualizatua bidaliko zaie eskatzaileei Egoitza Elektronikoaren bidez.

Unibasqek emandako ebazpena arrazoitzeko nahikoa izango da Aholku Batzordeek emandako txostenak sartzea, Unibasqek bere gain hartu baldin baditu. Horrela ez bada, aipatutako txosten horiekin bat ez egiteko arrazoiak gehituko dira Unibasqen ebazpenean, bai eta ebazpenaren justifikazioa ere, adituek emandako beste txosten batzuek abalatu edo ez.

2. Ebazpenek zein tartea ebaluatu duten adierazi beharko dute, tartea positiboa edo negatiboa izan den ere eta, hortaz, txostena baiezkoa ala ezezkoa ote den. Bestalde, ebaluazioa ezezkoa bada, dagokion ebaluazio txostena erantsiko zaio.

3. Ebazpen horren aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, nahi izanez gero, Unibasqen aurrean, hilabeteko epean, edota, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Epaitegi eskudunetan, bi hilabeteko epean (bi kasuetan, ebazpen kolektiboa iragarki-taula elektronikoan jakinarazten denetik aurrera kontatzen hasita).

4. Ebazpena emateko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia irekitzen denetik aurrera (2025eko urtarrilaren 13a). Unibasqek eskaeraren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea etetea adostu ahal izango du, Urriaren 1eko 39/2015 Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidegoaren Legearen 22d) artikuluak xedatutakoaren arabera, eskaeren ebaluazioa ebazteko ANECA-k Unibasqera nahitaezko txostenak bidaltzea guztiz beharrezkoa den heinean.

Hamargarrena. - Dokumentu-erregimena eta datu pertsonalen inguruko eskubideak.

1. Datuak babesteko dagoen araudiaren arabera, (kontuan hartuko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa (RGPD), baita 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoan jasotakoa ere), interesdun pertsonak emandako datuak fitxategi pertsonal automatizatu batean sartuta gera daitezke. Datu hauen titularra Unibasq izango da eta Agentziak egindako deialdi prozesuak garatzeko erabiliko ditu, betiere interesdun pertsonek bertan parte hartzen badute.

2. Datu pertsonalak "Irakasleen ebaluazio programak" izeneko tratamendu jardueran tratatu eta sartuko dira.

- Arduraduna: Unibasq.
- Helburua: Irakaslegoaren irakaskuntza, ikerkuntza, ezagutza zabaltzearen eta kudeaketa merituak ebaluatzea, programa desberdinen arabera.
- Legitimazioa: Beharrezkoa den tratamendua, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

- Hartzaileak: Dagokionean UPV/EHU, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila.
- Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.
- Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta daiteke Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

  www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/034900-capa2-eu.shtml
- Araudia: Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

Hamaikagarrena. - Errekurtsoak

Deialdi hau eta haren oinarriak behin betikoak dira administrazio-bidean, eta, haien aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarekiko auzien jurisdikzio-organoei, bi hilabeteko epean, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hala ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. eta 46. artikuluetan. Halaber, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Agentziari, hilabeteko epean, adierazitako 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluei jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 9an.

Iñaki Heras Saizarbitoria
Unibasq-en Zuzendaria